


BOST POLITIKO PLAZARA

36249



1) Gaur bertarako, Euskal Herriarentzat, zer antolamendu politiko eskatzen duzu?

DAVANT

Espainiar eta frantziar Estatuaren barrutik lortzen ahal genukeen autonomiarik zabalena erdietsi behar dugu:

a) Hego aldetik, agian Estatu Konfederal batean, Foruen berpiztea eta gaurkotzea, adibidez (edo eredu) Quebec herriak Kanadaren baitan dauzkan eskubide bertsuekin. Erran nahi dut:

—Politika sailean, egiazko botere sakonak.

—Jakintzan eta hizkuntzan, eskalduntzearen eragiteko eskubide osoak.

—Ekonomian, funtsezko bizipideen herritartzea, sozializatzea.

b) Ipar aldetik Euskal-Herriak behar lituzke ber denboran departamendu (edo probintzia ofizial) baten eskubideak, eta eskualde (erregio) batenak, Korsegak zituen bezala, eta gainera:

—Euskara, frantsesaren bete, bizi ofizial eta publiko guztian.

—Industriatze baten planifikatze-ko ahalak.

ESCUADERO

—Estatu federal baten antolamendua eta Espainiako historiak eskatzen duen antolamendua. Elkartutako Estatu batean Katalunyak, Euskadik eta Galiziak beren nortasun haundia osa zezaketen itxuraz. Bestalde, administrazio lana eta politika lana hutsalak gertatzeraino pilatu du boterea antolamendu batu erdirakoiak.

Agintearen edo boterearen kontrola behar beharrezkoa da gaurengungo Estatuetan. Besteak beste, hori lortzeko bidea ematen die herritarrei federalkuntzak. Denen arteko oreka gainera. Izan ere elkartutako Estatuak elkarri neurriak jar-tzen dizkiote.

Arazoi sendorik bada horretarako. Estatu bakarrean elkar desegiten duten ondasunak salbatzen dira antolamendu federal batean: herri desberdinen ohiturak, kulturak, legeak eta abar.

MONZON

Ongi diozu: «gaur bertarako». Luzarora begiratu, euskal problema ez baita ez espainola eta ez frantsesa, europarra baizik.

Europa-Erakundearen baitan behar harko da, egunen batez, euskal problema ere, OSORIK HARTUA, oso ki erabaki eta antolatu.

Baina Bergaratik Eibarreraino joateko, Maltzagatik behar da pasa. Eta politika bidean ere, berdin gertatzen zaigu.

Gaur kaurkoz beraz, hego-Euskadin dugu korapilorik lodiena; eta gora-behera larrienak Espainiarekin ditugu. Partida beraz, egun, hego-EUSKADIn behar dugu jokatu.


1936ko gerla ez da oraindik bukatua. (Ingurura begiratzea aski dugu). Lehen lehenik beraz, **Euskal Herri eta Espainiaren arteko guldaldi luze eta odoltsu hau behar dugu geldiarazi**. Honetaz, Espainian sortu berria den **COORDINADORA** delako hori, esperantza bat izan daiteke denentzako.

Baina... **bakea egiteko, gudan dabiltzenekin**, behar da mintzatu. Eta GAUR gudan dabiltzaten abertzale hoiekin hitzegin nahi ez izatekotan, euskal problemak ez du GAUR konponketarik izango. Garbiago esango dut: Hoiekin mintzatu gabe, ez dago gaur EUSKADIn ez bakerik, ez konponketarik; eta... Hoiek bazterrean utzirik gaur Madrilen antolamendutan ibili nahi izatea, ahuntzaren gauerdiko ezula da neretzako. Beraz, lehenik arrima gaitezen etxekook. Hauzoeekin mintzatu gara gero. Ez ahal da hori, aber-tzaletasunak agintzen duen bide bakarra?

TXILLARDEGI

—«Gaur bertarako» zure hitzak kontutan hartuz, gaur eta Hegoaldean lortu litekeenaz mintzatu naitzaizu soilik.

Ezen badugu garaia, honenbeste urte honetan, ezintasunez, politikazko morfina-beharrez, estratosferako ametsetan errebelaturik ibili



Davant



Escudero



Monzon



Txillardegi



Zubiaga

ondoren, orain hankak lurrean pausatuta, eta berehalako helburu eskuragarri eta zehatzez pentsatzeko; eta aberrigintzari buruz, herriarekin eta elkar-adituz hasteko.

Hots, «gaur bertarako» berriro, helburu bat mami daiteke Hegoaldean, ene ustez: «LAURAK BAT» delako haren obraketa. Araba, Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaia elkarrekin, beraz, eta hiriburu Iruñea hautaturik, geure burua geronek, euskaldunok alegia, euskaldun gisa eta geuri dagokigun bezala gidatzen hastea.

Katalanek eskierki; eta galiziarrek ere hor nunbait, nik uste, helburu berbera lortu nahi dutenez gero, soluziorako bidea (behinola Madrillek hartutako bidea, ez dezagun ahantz!) ezinbestekoa eta nabarmena da: Espainako Erresumak Federazio-moldea hartzea. Eta federaketa horretan Euskal Herria, ahalik eta sailik gehienetan, bere buruaren jabe izatea.

Bestela, ene ustez, eta Isaias-en anaia bizkia izan gabe, ez da bakarrik izango inorentzako gure lurraldean; herriak iltzaturik baitarama, gero eta irmoago, eta bihotz muinetan beretan, bere herio-aurre mingarri eta seguruaren zantzu etsia.

ZUBIAGA

—Ez gara historiako eztabaida hutsaletan sartuko. Baina gure herriari bere eskubideak eta foruak kendu zitzaizkionean, euskaldunari berez ez zegozkion bide gogorrak

hartu behar izan zituen Euskal Herriari. Ituna hautsi egin zen; gaurregun oraindik orduan sortu zen nahas-mahasean murgildurik gara.

Gaurkotutako Foruetara itzuli behar da berriro, federalismora. Baina talde baten, Alderdi baten, karlisten iritzia da hau. Agian ez da Euskal Herriaren iritzi osoa. Erantzun jator eta oso bat eman nahi baldin bazaio, beraz, bere buruaz jabetzen eta erabakitzen utzi behar zaio Euskal Herriari. Alde batekoek bakarrik erabakitakoa ez da egiazkoa izan ohi. Maltzurra, makurra eta gezurrezkoa izateko arriskua du alderdi batek erabakitzen duenak.

Euskal Herriak. berak eta berak bakarrik, erabaki behar du bere antolamendu politikoa.

2) Hori lortzeko, zer urrats eman behar dira?

DAVANT

Gure xedeak Herriari ezagutaraz diezazkiogun. Beraz, politika bide bat argi eta garbi finka dezagun, eta oihusta. Indarrak baditu Euskal Herriak, baina oso sakabanaturik daude. Gaurko balio lukeen jomuga baten inguruan bil ditzakegu.

ESCUDERO

—Bi urrats eman behar dira. Euskal Herriari bere autonomia lortu behar zaio. Foru antolamendura itzuli behar da, autonomiara, bere garaian Euskal Estatutoa zeritzanera.

Estatu erdirakoia Estatu federal bat egin behar da edo Errepublikara garaian herri desberdinei autonomia eskaintzen zien Estatu integral bat.

MONZON


Askatasunik ez dugu izango, indarrak ez badugu. Indarrak ez dugu izango, batasunik ez badugu. Batasunik ez dugu izango, Herriak berak hartara bortxatzen, bultzatzen, behartzen, derrigortzen ez bagaitu. Nola? Batasunik nahi ez duten guztiak bazterreratuz. Eta batasun bila dabiltzan denok aurrera sakatzu.

TXILLARDEGI

—Kondaira ez omen da inoiz bi aldiz eta modu berean gertatzen. «Joanak joan» zioten gure arbasoek ere. Baina, gaurkoturik, jadanik mamitua izan zen legetasun demokratikoa eskatzen dugu; ez utopia urrunik.

Espainako Erresuma European eta XX. mendean lotsarik gabe sartuko bada, herrien errespetuaren fabore sartu beharko du, eta ez bere

BOST POLITIKO PLAZARA



mende dituen herriak ukatuz eta zapalduz. Eskubideez eta nahiaz, 1931an Lizarran argi-eta-garbi adierazi zuenaz geroztik, Euskal Herriak baturik eta bere gisara gobernatu nahi du bere burua.

Españako Erresuma federatu berrian, hitz batez, sarrera eskatzen dugu Euskal Herriarentzat.

Legetasun berri horrek osoki errespetatuko du demokrazia: buruzagien hautaketa, alderdi eta sindikatoen askatasuna, ideien defentsa librea, zapalduak hizkuntzen piztea, legetasun berrian onartuko dira.

Eta, honen ondorioz, azkeneko urteotan eskubide herriko guztiak ukatuak izan direnez gero, politik-
-amnistia osoa eskatzen dugu gaur arteko politik-arazoei dagokienez: preso guztiak kalera, eta deserriturik bizi direnak oro etxera.

ZUBIAGA

—Oinarrizko eta behar beharrezko lehen urratsa batasuna dugu. Euskaldun garen eta euskaldun garelako uste dugun guztiok geuron edo taldearen interesak baztertu behar ditugu oraingoz. Horretan bat egindakoa, gurea dena eta kendu zitzaiguna, indar haundiz eska dezakegu.

Euskal Batasun honen egitekoa, eta presakakoa gainera, nazio ikuspegi hezuramamitutako Estatuto bat gaurkotzea da.

Gure Herriak dituen asmo eta nahiak, gaizki hartzen dira gaurre-

gun planteamendu politikoak egingen diren lekuetan, eta inolaz ere onar ez ditzakegun erregali eskasak eskaintzen zaizkigu. Herriak berari dagozkion bideak har ditzan, nahitaezkoa da demokraziatzko ego-

3) Urrats hoiak ematerakoan, nor hartuko zenituzke bide-laguntzat?

DAVANT

Lehenik elkartu behar dugu, baina laster, abertzale sozialistok. Gero beste abertzaleekin, eta azkenekotz gainerateko indar herrikoiekin, harreman sendoak antola ditzakegu. Kataluniñan egin dutena ezin dugu, egin, Euskotarrok? 1931an bezala huts egingen ote dugu Katalandarrek ongi hartutako itzulia? Segurki Nafarroaren arazoa hor daukagu. Abertzaleen eta besteen arteko leizea. Bainan ez zait ezin bete.

ESCUDERO

—Bakoitzaren eta taldearen interesei uko egingaz, autonomia lor-

tzeko batzeko prest diren indar demokratiko guztiekin.

MONZON

Lehenik, Eibarreraino heldu nahi duten guztiak. Zernahi koloretakoak izanik ere. Gero, Maltzagaraino lagundu nahiko gaituztenok. Baina... kontu handi eginez azken hauekin: bide zuzenetik ez gaitzaten alderazi. Irriskua hor baitago: guk haiek Maltzagara eramanez harrean, haiek geu ez ote gaitzaten... Cuenca aldera eramango.

TXILLARDEGI

—Orain eta Hegoaldean beti, eta berehalako helburu zehatz horri buruz, España herriko eta federatuen alde, eta beronen barruan gure «Laurak Bat» herrialde hori elkarturik sartzearen alde jokatzeko dute GUZTIAK onartuko nituzke, inolazko berezkuntzarik gabe. Ez, beraz, alderdi abertzaleak soilki; baizik-eta euskal autonomia hutsaren alde zinez ari direnak berak ere bai.

Jakina (esan beharrik ba ahal dago?) «vascongadismo»tik irten ezin, eta Nafarroa oraindik ere Euskal Herrikeri berezi nahi luketenek, esate baterako, besterik gabe hastantzen dute gugandik beren burua. Berak ari dira esaten goraki aski, eta ez gu bakarrik, zatiturik, arrotzurik, zanpaturik eta hilik ikusi nahi gintuzketela.



Davant



Escudero



Monzon



Txillardegi



Zubiaga

ZUBIAGA

—Zer lortu nahi dugun hark erabakitzen du norekin elkar. Honela, demokraziari dagokionez, Karlista Alderdia Espainiako Estatuan demokraziaren alde direnekin elkartzen da; sozialista denez iritzi horretakoekin; euskaldun garenez, berriz, lehen aipatu ditudan baldintzetara mugatzen gara. Denok nahi dugun zerbait lortu nahi denean, ez da inor baztertu behar. Edozein taldek badituela besteak zokoratze-ko arrazoiak, uste izan dezake. Inork inor ez aldameneratzea lortu behar da, ordea.

Oinarri oinarriko programaketa bat onartzera iristen garenean elkarren arteko tratua edo ituna programaketa horretara bakarrik mugatzen da. Hori betetzera bakarrik behartzen ditu taldeak ez beste ezertara.

la ez diren gainerateko indar herrikoiak.

Euskotarron arteko batasun horrek, bakea ekar baleza Espainiako Estatu osoan, azkenekotz buka dadin, egiazki, duela berrogoi urte hasi zen gudua! Gerla irabazi zutenek, bakearen irabaztea erabaki dezatela, Karlistek egin duten bezala...

Amets ederregia ote? Iruñeko enparantzan entzunen da, Bazkoz, erantzuna.

ESCUDERO

—Denok elkartzeko gogoia eta ahalegina. Horrekin batera bortxakeriari lekurik utziko ez dion demokrazia jator bat lehen bait lehen lortzeko asmo sendoa.

MONZON

Nafarroarik gabe ez dagoela euskal Aberririk. Nafarroa alde batera utzi nahi dutenekin, ez dugula biderik egin nahi: **ez Eibarreraino eta ez Maltzagaraino**. Geroari buruz, **Iruñea dela geure Hiri Nagusia**. Eta... **Gora EUSKADI esan ala Gora Nafarroa esan, gauza berdina dela geuretzako**.

Honetarik kanpo, zer esango nuke nik? Denaz gaineratik, geure hilak, geure espetxeratuak ditugula gogoan. Eta hauetarik **azkena** kalera atera artean, ez dela guretzat bakerik izango.

TXILLARDEGI

—Elkar-hartu beharraren deia izan dadila.

ELKAR-HARTU ALA HIL!!

Gorritz edo urdinez, ardi-larruz edo otso-muturrez (gaur berdin baita!) berezi eta etsaitu nahi gaituztenak dira gue etsaiak.

Ezen «divide ut vinces» baita gaur eta beti garaitzeko bidea.

Hegoaldearentzako autonomiaren helburu apal (?) horri buruz gaur elkartu, beraz; ala morfinaldi betean, eta geroko paradisuak hutsaletan lokartu, eta hil.

Nabarmen dago aukera, ene ustez.

ZUBIAGA

—Borondate onezko eginahal izugarri bat denon aldetik. Ezinezkoa zirudien orain urte batzuk, zenbait buru-esturentzat gaurregun ere bai.

Denok amore eman behar dugu zerbaitetan. Lehengoa gorrotz gogoratzea baino hobea da geroko bizi-modu baketsuari begiratzeta. Odolez gorritutako kondaira ez dugula gehiago luzatu nahi erakutsiko dugu honela.

Basatiak garela uste duen edonorri ez duela arrazoi agertuko diogu. Herriarekin kontatu gabe eman nahi den limosnari EZEZKO borobila emango diogu. Bere eskubiak lortu nahi dituen herriaren elkartu nahia ezin dela itzali, erakutsiko diogu.

Zatitu nahi gaituztenen kontrako erantzuna izango da. Laster politikazko erantzunean hezurmamituko den amets itsaropentsua gertatuko da. Elkarri irakatsi eta elkarrengandik ikasiko dugun lezioa izango da.

DAVANT

Batasunaren eragile haundiena zait aurtengo Aberri Eguna: IRUÑEAN, gure zinezko hiri-buruan, «zazpiak bat» egiten gaitu Aberri Eguna; bat egiten atzo etsai ziren Karlistak eta besteak; bat egiten, halaber, Abertzaleak eta oraino ha-

4) Hori horrela izanik, aurtengo Aberri Eguna zer esanahi berezi du zuretzat?